

Gaiak:

- Jarduna

Hirugarren mahai sektoriala (otsailaren 17an)

ADMINISTRAZIOAREN ESKAINTZA:

Ez dute inolako murrizketarik onartzen ordutegi lektiboan. "DAE"rekin egin duten ikerketa baten arabera, irakasle gehienok "oso ongi bizi garela" diote (gehienez, HH-LHn 20 ordu eta BHn 16 ordu egiten omen ditugulako). Beraz, orduak soberan ditugu beste lanak egiteko.

- Segurtasuna eta osasuna

Azterketa medikuak bi urteetan behin egitea ametsa omen da. Lanak eragindako gaixotasunen katalogoa osatzea exijitu dugu.

- Genero berdintasuna

Eraso sexisten inguruko berrikuntza batzuk jaso dira. Arlo hau lantzeko "konpromisoak" aipatzen dira, baina baliabideez gauza gutxi. Ekarriko al du honek hezkidetzaren aldeko apostu seriorik?

- Elkarbizitza

Bi urteko epea emango dute ikastetxe guztiek Elkarbizitza Proiektua eginda izateko. Baliabideak zehaztu gabeko "kudeaketarako ordu kreditu orokorraren" poltsa magiko batetik hartuko lirateke.

Zaharrak berri

...

GURE BALORAZIOA

NEGOZIAZIOA aurrera doa, eskaera guztiei erantzun berbera emanez: EZ, EZ eta EZ. Proposamen orokorra luzatuko omen digute datorren astean. Espero dugu ez gaituztela bilduko EEEEEZZZZ esateko!



LAN BALDINTZAK HOBETU,
ESKOLA PUBLIKOA INDARTU

Otsailak 22